Irurako udala

2025KOIR0004

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA LOATZO PLAZAN KOMUN PUBLIKOA INSTALATZEKO, IZAPIDETZE ARRUNTAREN ETA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ

I.- XEDEA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA 1. KLAUSULA. KONTRATUAREN XEDEA ETA KALIFIKAZIOA

Kontratu honen xedea da Loatzo Plazan komun publiko aurrefabrikatua eta autogarbigarria hornitzea eta instalatzea.

CPV: 45223810-7 Eraikuntza aurrefabrikatuak
45100000-8 Lurra prestatzeko lanak
45215500-2 Komun publikoak

1. KLAUSULA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua, SPKLren 25. artikuluaren arabera administrazio izaera duena, mistotzat jotzen da, hornidura- eta obra-kontratuen berezko prestazioak jasotzen baititu; hala ere, hornidura-kontratuaren arauek arautzen dute lizitazioa, prestazio nagusia delako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 18. artikuluan xedatutakoaren arabera. Kontratua gauzatzeko, ordea, kontuan hartu beharko dira obra-kontratuen berezko baldintzak, agiri honetan jasotzen direnak.

Bai administrazio-klausula zehatzen agiri hau, bai Elkarlan estudioa SLP enpresak egindako dokumentu teknikoen agiria (Irurako Loatzo plazan komun publiko bat jartzeko gauzatze proiektua).
Agirietan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauetan xedatuta dagoenak arautuko du kontratua:

1- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

2- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzkourriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari aurka egiten ez dioten guztian eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen xedapen indargabetzaileak ukitzen ez duen guztian.

3.- 32/2006 Legea, urriaren 18koa, Eraikuntza Sektorearen azpikontratazioa arautzen duena.

4.- Bidezko bada, 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-obren gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena.

5.- Bidezko bada, 209/2014 Dekretua, urriaren 28koa, eraikuntzaren kalitate-

kontrola arautzen duena.

6. Estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioa arautzeari dagokionez bakoitzaren esparruan aplikatzekoak diren gainerako xedapen guztiak.

7.- administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

3. KLAUSULA. INFORMAZIOA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILEAN SARTZEKO MODUA.

Lizitazio hau erregulazio harmonizatuari lotuta ez dagoenez, lizitazio-iragarkia Irurako Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Eusko Jaurlaritzaren kontratazio publikoaren plataforman. htt50ps://www.contratacion.euskadi.eus/w32-kpehome/eu/

SPKLaren 63. artikuluaren arabera, ondore horietarako beharrezko dokumentazioaren bitartez kontratu-jarduerarako sarbide publikoa eta gardentasuna ziurtatzeko helburuz, ondoren adierazten den helbidearen bitartez egin daiteke Irurako Udalaren kontratatzailearen profilerako sarbideko publikoa: https://www.irura.eus/eu/kontratatzailearen-profila

4. KLAUSULA. JAKINARAZPENAK.

Bitarteko elektronikoak erabiliko dira jakinarazpen eta komunikazioetarako, kontratatzailearen profilean argitaratuta zein lizitatzaileak emandako helbide elektronikora jakinarazpena bidalita, edo jakinarazpen elektronikoz udalaren egoitza elektronikoaren bidez https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=046&hizkuntza=EU

5. KLAUSULA. KONTRATAZIO-ORGANOA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean xedatutakoaren arabera, alkatea da kontratazio-organoa.
Kontratazio Mahaiak emango dio laguntza kontratazio-organoari, eta egoki iritzitako aholkularitza teknikoa izango du.

6. KLAUSULA. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia honela osatuko da:
Lehendakaria: Gorka Murua alkatea, mahaikideak:
udal idazkaria. Irantzu Arrizabalaga Gainza
Arkitekto teknikoa: Iñaki Arregi Garitano
Mahaiko idazkaria: Gurutze Astiasaran, idazkaritzako administraria.

Mahaiaren bileretara udal arkitektoa bertaratuko da, aholkulari gisa, eta hitza izango du baina botorik ez.

7. KLAUSULA. JARRAIPENA ETA KONTROLA

Prozedura honen ohiko jarraipena eta kontrola Kontratazio Mahaiak egingo du. Hala ere, SPKLren 62. artikuluaren ondorioetarako, udal-zerbitzuen ardura duen udal-arkitekto teknikoa izendatzen da kontratuaren arduradun, eta, gainera, honako eginkizun hauek dagozkio, hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko:
Kontratatutako obra egoki egikaritzeko beharrezkoak diren zuzendaritza-, ikuskaritza-, egiaztatze-, eta zaintza-lanak kontratazio-organoak izendatutako obra-zuzendariak egikarituko ditu. Gainera, ondorengo eginkizunak, hitzartutako prestazioa behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko helburuz:

a) Kontratuaren xedea betetzerakoan sor litekeen edozein gorabehera konpontzeko beharrezko diren batzarrak sustatzea eta deitzea, interes publikoari ondoen datozkion baldintzetan.

b) Kontratua egikaritzerakoan sortutako gorabeherak konpontzea, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren (aurrerantzean, HAKLEO) 97. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki.

c) Kalte-galerak erreklamatzeko eta behin betiko bermea konfiskatzeko espedienteetan txostenak egitea.

d) Zerbitzuak partzialki eta/edo osorik jaso aurretik, txostenak egitea.

e) Bermeak itzultzeko edo ezerezteko espedientetan, txostenak egitea.

f) Berme-epearen betetze-mailaren berri ematea.

g) Kontratua egikaritzeko ezarritako baldintza berezi eta funtsezkoen betetze-mailaren berri ematea.

h) Kontratatutako prestazioak ondo egikaritu izanari buruzko ziurtagiriak emateko txostenak egitea.

I) Zigorrak ezartzeko, kontratua eteteko, kontratua suntsiarazteko eta kontratua behar bezala betetzen dela bermatzeko edo enpresa kontratistaren ez-betetzeak eragindako kalte-galerak ordaintzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko prozedurari hasiera ematea proposatzea.

j)Kasu bakoitzean dagozkion ildo nagusiak ezartzea; esleipendunari edozein unetan eskatu ahal izango zaio kontratuaren xedearen egikaritze-egoerari, esleipendunaren betebeharrei eta epeen eta jarduketen betetze-mailari buruzko beharrezko informazioa.

k) Hitzartutakoa behar bezala garatzea lortzeko edo egoera hori berrezartzeko beharrezko neurriak adostea premiazko beharra dagoenean, edo kontratistak, edo haren mende dauden pertsonek, kontratua behar bezala egikaritzea oztopatzen duten egintzak edo egintzarik ezak egiten dituztenean, horren berri eman beharko zaiolarik kontratazio-organoari.

l) Prestazioaren egikaritza bertan behera uztea proposatzea eta horren berriematea.

m) Zerbitzuak hartzeko egintzetara joatea, eta betetze-mailarekiko adostasuna edoadostasunik eza egiaztatzen duten Harrera-aktak izenpetzea.

n) Kontratistari jarraibideak ematea, beti ere ez badute kontratuaren xedea aldatzeneta ez badira indarrean dauden xedapenen edo Pleguetako eta gainerako kontratuagirietako xedapenetatik eratorritakoen aurkakoak.

Horrez gain, kontratazio-organoak izendatutako pertsonen laguntza izan dezake obra zuzendariak.

II.- KONTRATUA

8. KLAUSULA. AURREIKUSITAKO BALIOA.

Kontratuaren aurreikusitako balioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 101. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ezarri dena, 56.579,99 euro da (BEZik gabe).

9. KLAUSULA.- LIZITAZIO-AURREKONTUA

Gehieneko lizitazio-aurrekontua 56.579,99 euro da (BEZik gabe), 68.461,79euro (BEZa barne), eta ezetsi egingo dira zenbateko hori gainditzen duten eskaintzak.
Kontratuaren prezio horretan, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak sartuko dira, besteak beste, azalpen hutsez eta ez mugatzaile gisa, honako hauek:

- Kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak,baldintza-agiri honetan, "Irurako Loatzo plazan komun publiko bat jartzeko gauzatze proiektua" izeneko proiektu teknikoan aurreikusitakoaren arabera. Gerora ez da onartuko azken prezioan aldez aurretik ikusi behar ziren kontzeptuengatiko fakturazioa.

- Hornidurak eskatzen dituen instalazioei dagozkien era guztietako eragiketak, hala nola probak eta saiakuntzak, bai eta beharrezkoak diren elementu osagarriak ere, baldin eta haien garrantzia txikia eta aldez aurretik definitzeko zailtasuna direla-eta, ez badira berariaz agertzen horniduraren osaeran.

- Kontratua gauzatzeari dagozkion kontzeptu guztiak eta kontratua gauzatzeko langileei dagozkien gastu guztiak (hau da, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jaiegunetako lanak, bajagatiko edo gaixotasunagatiko ordezkapenak, banakako istripu-aseguruak, etab.), bai eta zerga guztiak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak ere.

- Hornidurarен xede diren ondasunak entregatzeko, lekualdatzeko eta entrega-lekura garraiatzeko gastuak.

- Esleipendunak kontratua gauzatzeko erabili behar dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu,ekipo, tresna, ekipo informatiko eta aparatu guztiak.

- Enbalajeak eta tresnak desmuntatzea, kentzea eta zabortegira eramatea, ekipamenduaren instalaziotik kendu behar badira.

Zenbateko hau, lizitatzaileek beherantz hobetu ahal izango dute.

10. KLAUSULA.- FINANTZIAZIOA

Kontratu honen zenbatekoari aurre egiteko aski diru dago aurtengo aurrekontuaren

kontusail honetan: 1 0000.622.00.459.00.2025 (komun publikoa)

11. KLAUSULA.- ORDAINKETA ERA

Prezioa komun publikoaren instalazioa amaitzen denean ordainduko da, dagokion faktura aurkeztu ondoren. Faktura arduradunak gainbegiratu eta kontrastatuko du, eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko du.

Faktura onartu ondoren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 198. artikuluan aurreikusitako legezko epeen barruan ordainduko da.

Enpresa kontratistak faktura formatu elektronikoan aurkeztuko du, Gipuzkoako Fakturen Sarrera-Puntu Orokorraren bidez (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua), Udaleko Aurrekontua Betearazteko Arauan xedatutakoaren arabera, abenduaren 27ko 25/2013 Legea, faktura elektronikoa sustatzeari eta sektore publikoan fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzkoa, betez.

Unitate organikoen DIR3 kodeak:

1. Kontabilitate Bulegoa: LO1200467
2. Organo kudeatzailea: LO1200467
3. Izapidetze-unitatea: LO1200467

12. KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA.

Materialaren hornidura eta instalazioa, bai eta obra guztiak gauzatzea ere, gehienez ere 3 hilabeteko epean egingo da. Epea kontratua formalizatzen den egunean hasiko da zenbatzen.

13. KLAUSULA. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honen izaera dela eta, ezin izango da kontratuaren prezioen berrikuspenik egin kontratuak indarrean dirauen bitartean.

III.- LIZITATZAILEAK (PERTSONA JURIDIKO ETA FISIKOAK)

14. KLAUSULA. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratu hau esleitzeko aukera izango dute Espainiako edo atzerriko pertsona fisikoek edo juridikoek (bakarka edo enpresaburuen aldi baterako elkarteetan), baldin eta jarduteko erabateko ahalmena badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 72. artikuluan araututako kontratatzeko debekurik ezarri ez bazaie eta Administrazioarekin kontratatzeko eskatzen den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa dutela egiaztatzen badute, edo behar bezala sailkatuta badaude, ondorengo klausulan ezarritakoaren arabera.

Enpresaburuen Aldi Baterako Elkarteei, euren osaerari eta lizitazioan zehar horiek aldatzeko kasuei dagokienez, 69. artikuluko 8. atalean eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

Pertsona juridikoak kontratuen esleipendunak izango dira kontratuen prestazioak fundazio-estatutuen edo fundazio-arauen arabera pertsona juridiko horiek berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barnean bilduta badaude.

Kontratistek, era berean, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko kasuan kasu eska daitekeen gaikuntza enpresarial edo profesionala eduki beharko dute.
Sozietate kontratistak parte hartzen duen enpresa-bategiteen kasuetan, kontratuak indarrean jarraituko du erakunde xurgatzailearekin edo bategitearen emaitzazkoarekin, eta kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztietan subrogatuta geratuko da. Era berean, enpresen edota horien jarduera-adarren banantze, ekarpen edo transmisio kasuetan, kontratuak hura atxiki zaion erakundearekin jarraituko du, eta erakunde hori kontratutik eratorritako eskubide eta betebeharretan subrogatuta geratuko da, baldin eta gaitasunari eta kontratatzeko debekurik ez izateko baldintzak eta esleipena erabakitzen denean exijitzen den kaudimena betetzen baditu, edota eragiketa horien onuradun diren sozietateek eta, irauten badu, banandutako ondarearen, enpresen edo adarren jatorri den sozietateak, haiekin batera erantzukizun solidarioa bere gain hartzen badu kontratua egikaritzeari dagokionez. Kontratua atxikitzen zaion erakundeak beharrezko kaudimenbaldintzak ez betetzeagatik subrogazioa ezin bada gauzatu, kontratua suntsiarazi egingo da, eta ondorio guztietarako esleipendunaren erruzko suntsiarazpen-kasu bat bezala hartuko da.
Enpresa komunitarioei edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetakoei eta enpresa ez komunitarioei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.
Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 77 artikuluaren arabera, kontratu honetarako ez da enpresaburuaren sailkapena eskatuko, baina 15. klausulan eskatzen den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatu beharko da.

15. KLAUSULA. GAITASUNA ETA KAUDIMENA.
Ondorengo alderdiak egiaztatu beharko dituzte lizitatzaileek:

1.- - Jarduteko gaitasun osoa dutela.
Pertsona juridikoa bada, kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo eratze-arauen arabera berezko dituzten helburu, xede edo jarduera-esparruen barruan sartzen direla. Espainiarrak ez diren enpresen jarduteko gaitasuna Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan ezarritako moduan egiaztatu beharko da.

2.- Ez dutela betetzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatzeko debekua dakarren inguruabarrik.

3.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela.

4).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea

Enpresaburuaren kaudimen ekonomiko finantzarioa arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko aseguru bat dagoela justifikatuta akreditatu beharko da, 100.000 euroko gutxieneko zenbatekoaz, baita kontratuaren egikaritzapen osoan aseguruaren estaldura atxikiko dela bermatuko duen berritzeko edo luzatzeko konpromisoarekin batera ere.

5).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea.

Gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzeko, berriz, azken hiru urteetan egindako lanik garrantzizkoenen zerrenda aurkeztu behar da, eta, horrez gain, lan horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak adierazi behar dira. Jasotzailea

sektore publikoko erakunde bat bada, eskudun organoak bisatutako edo egiaztatutako agirien bitartez kreditatu beharko dira egindako lanak; jasotzailea arlo pribatuko eroslea bada, horrek emandako ziurtagirien bidez, eta halakorik ez bada, enpresaburuaren deklarazioaren bidez.

Eskatzen den gutxienekoa: aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, ikusi behar da lizitatzaileak KONTRATU HONEN ANTZEKO EZAUGARRIAK DITUZTEN LANAK egin dituela azken 3 urteetan, 60.000 euroko gutxieneko zenbatekoarekin.

Enpresa sortu berriek – Hau da, bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna dutenek – SPKLren 89. artikuluaren 1. zenbakiko b) letratik g) letrara bitartean ezarritako edozein bitartekoren bidez egiaztatu ahal izango dute kaudimena.

16. KLAUSULA. KAUDIMENA KANPOKO BALIABIDEEKIN OSATZEA.

SPKLren 75.1 artikuluarekin bat etorriz, enpresaburuak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak balia ditzake, haiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta frogatzen badu kontratuaren egikaritzapen osoan zehar kaudimen eta baliabide horiek efektiboki edukiko dituela, eta baliatzen duen enpresa kontratatzeko debekuaren eraginpean ez badago.

IV.- ESLEITZEKO PROZEDURA

17. KLAUSULA. ESLEIPENAREN TRAMITAZIOA ETA PROZEDURA

Prozedura ireki arrunt bidez esleituko da kontratua.

Proposamenak baloratzeko eta kontratua esleitzeko, irizpide ugari erabiliko da, kalitateprezio erlaziorik onenaren arabera. Kalitate-prezio erlazio hori kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera ebaluatuko da, SPKLaren 145. artikuluaren eta honako Plegu Administratiboaren edukiaren arabera.

18.KLAUSULA. PUBLIZITATEA.

Administrazio Publikoen kontratuak esleitzeko lizitazio-iragarkia Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman kokatuta dagoen Irurako Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, eta bertan sartzeko 3. klausulan xedatzen dena kontuan izango da.

19.KLAUSULA. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.

Honako hauek dira lehiaketa esleitzeko oinarritzat balio behar duten irizpideak :

	ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK:	Puntuak	Zer gutun-azaletan egiaztatzen den

1	Proposamen ekonomikoa	50	3
2	Proposamen teknikoa	30	2
3	Berme epea handitzea	10	3
4	Genero-berdintasun irizpidea	5	3
5	Ingurumen irizpidea	5	3

1) **proposamen ekonomikoa: 50 puntu**

Proposamen ekonomikoari dagozkion 50 puntuak formula honen bidez banatuko dira:
1.1) Gehieneko puntuazioa emango zaio eskaintza ekonomiko onena egiten duen enpresa lizitatzaileari.
Gainerako eskaintzak baloratzeko, formula jakin bat erabiliko da: prezio baxuenaren zatiduraren zatidura eta lizitatzaileak egindako eskaintza (bere garaian baliozkotua) bider irizpideari aplikatu beharreko guztizko puntuazioa. Hau da:
PL = (Ob/Ol)* 50.
PL: lizitatzailearen puntuazioa.
Ob: eskaintzarik baxuena.
Ol: lizitatzailearen eskaintza.

1.2) Eskaintzak neurriz kanpokotzat edo balio anormaltzat jotzeko, Administrazio Publikoen Kontratuen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluan, enpresa lizitatzailea honako kasu hauetakoren batean dagoen aztertuko da:

- Lizitatzaile bakar batek parte hartzen duenean, baina lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino ehuneko 25 txikiagoa denean.
- Bi lizitatzaile lehiatzen direnean, beste eskaintza baino ehuneko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaile edo gehiago aurkezten direnean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 potzentu-unitate gutxiago dituztenak. Hala ere, batezbesteko hori zenbatzeko, zenbateko handieneko eskaintza baztertuko da, baldin eta batezbesteko hori baino ehuneko 10 unitate handiagoa bada. Nolanahi ere, ehuneko 25 baino gehiagoko baja neurriz kanpokotzat joko da.

Eskaintzaren bat ustez anormala denean, 5 egun balioduneko epea emango zaie eragindako enpresa lizitatzaileei, eskaintza hori baldintza horietan egiteko inguruabarren justifikazio egokia aurkez dezaten, SPKLren 149.4 artikuluan horri buruz adierazten diren irizpideekin.

2) Proposamen teknikoa: 30 puntu.

Alderdi hauek baloratuko dira:

- Proposatutako komun aurrefabrikatuko moduluaren eredua eta ezaugarri teknikoak eta estetikoak: erabilitako materialak, akaberak, dituen elementuak eta horien ezaugarriak (komuna, argiztapena, aireztapena...).

- Hornidura eta instalazioa garatzeko eta obrak gauzatzeko plana.

- Afekzioen kontrola eta kudeaketa. Baloratu egingo da obraren ingurua ezagutzea eta obrak bere eragin-eremuaren funtzionamendu normalean izan ditzakeen

eragozpenak minimizatzeko proposamenak egitea, bai eta afekzio horiek zaintzeko, kontrolatzeko eta kudeatzeko proposamenak ere.

- Bermealdiko mantentze-zerbitzua eta laguntza teknikoa.
- Lana gauzatzeko baliabide materialak eta giza baliabideak.

3.- Berme epea luzatzea , 0-10 puntu

2 puntu emango dira berme-urte gehigarri bakoitzeko, hau da, kontratu honetarako hitzartutako 5 urteko gutxieneko berme-epea luzatzen den urte bakoitzeko.
Puntuazioa honela banatuko da:

Urtebete luzatzea: 2 puntu.
2 urte luzatzea: 4 puntu.
3 urte luzatzea: 6 puntu.
4 urte luzatzea: 8 puntu.
5 urte luzatzea: 10 puntu.

4.- Genero berdintasuna , 0-5 puntu gehienez.

Hornidura eta instalakuntza hau gauzatuko duten langileen artean, gutxienez, emakumezkoa den langile bat egotea balioetsiko da (kontratuaren gauzatze-epe osoan zehar eta lanaldi osoan).

Emakumezkoa den langilearen lanaldia ez bada osoa, lizitatzaileak lanaldiaren ehunekoa adierazi beharko du eta puntuazioa proportzio berean emango da.

* Adibidez, lanaldi erdia badu (%50), 5 punturen ordez 2,5 puntu emango zaizkio.

- Irizpidea betetzen ez duten eskaintzak: 0 puntu.

Irizpidea ez dela betetzen ulertuko da hornidura egiten duten langileen artean emakumerik ez dagoenean, edo, halakorik izanda ere, kontratua lanaldi erdira iristen ez denean.

Egiaztatzeko era:

Lizitatzaileak: VI.A eranskina bete eta aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratua gauzatuko duten langileen artean emakumeren bat duten adierazi beharko dute.
Enpresa esleipendunak: Kontratua sinatzen denetik hilabeteko epean, kontratu honetako zerbitzua gauzatuko duten emakume enplegatuen zerrenda aurkeztu beharko du, honako datu hauek adierazita: langilearen izen- abizenak, sexua, kontratuen hasiera- eta amaiera-data, lanaldia eta lanbide-kategoria, langilearen lan-bizitzaren edo lan-kontratuaren kopia.

5) Ingurumen-irizpideak: 5 puntu.
Kontratuari atxikitako ibilgailu-flotari dagokionez, 5 puntu emango dira.
Kontratistak enpresan EURO 6 moduko ibilgailu bat izatea gutxienez. (VI erankina)

Esleipen-irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, 9/2017 Legearen 147.2 artikuluan aurreikusitako irizpide sozialak aplikatuta ebatziko da berdinketa, ordenaren arabera.

20. KLAUSULA.- BERMEAK

Behin-behineko bermea: Lizitazio honetan parte hartzeko, ez da behin-behineko bermea jartzerik eskatzen.

Behin betiko bermea: Kontratu Legearen 107.3 artikuluari jarraikiz, hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, kontratuaren esleipendunak lizitazio prezioaren % 5eko behin betiko bermea jarri behar du.
Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, kontratuaren esleipenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita, Udal Diruzaintzan jarri beharko da; eskudirutan jarriko da edo kontratu legearen 108. artikuluan xedatzen den edozein baliabide erabiliz.
Behin betiko bermea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuen araberakoa izango da.
Kontratu-aldaketaren ondorioz kontratuaren prezioa aldatu egin bada, bermea egokitu egingo da enpresaburuari aldatzeko erabakia jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita 15 eguneko epean, betiere aldaketaren ondoriozko kontratuaren prezio berriarekiko proportzio egokia izan dezan, eta hala egin ezean kontratua suntsiarazteko kausa izan daiteke. Zehapenak edo kalte-ordainketak gauzatzen diren datatik zenbatzen hasi eta epe berdinean, esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan, eta hala egin ezean kontratua suntsiarazteko kausa izan daiteke.
Bermeak itzultzeko, kontratu legearen 111 artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan, eta kontratuaren likidazioa onartu ondoren eta bermearen epea igaro ondoren antolatuko da, beti ere erantzukizunik ez badago.

V.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

21. KLAUSULA. PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK.

1. Lizitatzaile bakoitzak ezingo du aurkeztu proposamen bat baino gehiago. Ezingo du beste batzuekin aldi baterako batuta prestatutako proposamenik ere izenpetu bere aldetik proposamenen bat aurkeztu badu, edo ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan azaldu. Arau horiek urratzen dituen lizitatzaileak izenpetutako proposamen guztiak baztertuko dira.

2. Proposamenak aurkezteak berekin dakar plegu honen zein preskripzio teknikoen pleguaren klausuletan eta bere eranskinean jasotzen den eduki osoa baldintzarik gabe onartzea, inolako salbuespenik edo erresalburik gabe.

3. Ez da onartuko eskaintza argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, hutsakedo ezabaketak dituen proposamenik.

4.- **lizitatzaileen datuen babesari buruzko informazioa**:

4.1. Zerbitzua emango duten langileen datu pertsonalak, bai pertsona fisikoen kasuan, bai pertsona juridiko baten ordezkarien kasuan, bai curriculumari eta lan-arloko beste batzuei dagokienez, Irurako Udalak tratatuko ditu, datuen tratamenduaren arduradun gisa.

4.2. Udalean tratatutako dituen datuak interesdunak berak edo bere legezko ordezkariak,administrazio publikoek eta erregistro publikoek emandakoak dira.

4.3. Tratatzen diren datuen kategoriak hauek dira: identifikazio-datuak, identifikazio kodeak edo -gakoak, posta-helbideak edo helbide elektronikoak, merkataritza-informazioa eta datu ekonomikoak.

4.4. Datuak tratatzeko legitimazioa kontratuaren esleipena kudeaketa datza, kontratua formalizatu eta gauzatzeko, adjudikaziodunari esleitzen bazaio.

4.5. Datuak tratatzeko lege-oinarria Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko9/2017 Legean dago.

4.6. Informazioa biltzearen eta tratatzearen helburua da zerbitzuak hautatzeko edo esleitzeko prozesuaren egokitasuna baloratzea, baita – esleipenduna izanez gero – Udalarekin kontratuzko harremana mantentzeko erabiltzea ere, eratorritako alderdi ekonomiko eta teknikoei dagokienez, eta kontratatutako zerbitzuak kontrolatzea, eta, hala badagokio, gertaerekin zerikusia duten gorabeherei buruzko informazioa bidaltzea.

4.7. Jakinarazten da datu pertsonalak erakunde publiko eskudunei – Estatukoei edo autonomikoei – Laga edo jakinarazi ahal izango zaizkiela, Legearen arabera aurreikusitako kasuetan. Halaber, Administrazio Publikoaren iragarki-tauletan eta egunkari edo aldizkari ofizialetan argitaratu ahal izango dira.

4.8. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduarekin (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorriz, interesdunek beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, ahazteko, aurka egiteko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, idazki bat bidali beharko dute Udalera, NANarekin batera.

22. KLAUSULA. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Proposamenak aurkeztuko dira Udalaren erregistro telematikoan www.contratacion.euskadi.eus, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunaren ondorengo egunetik kontatzen hasi eta 26 egutegi-eguneko epearen barruan.

Agiriak, jakinarazpenak eta komunikazioak plegu honetako eranskinetan jasotakoari atxikiko zaizkio.
Proposamenak isilpekoak izango dira, eta, horretarako, izaera hori bermatzen duten bitartekoak jarriko dira lizitazio publikoa egin arte.
Agiriak izendatzeko, kontuan hartuko dira plegu honetako 23. paragrafoan adierazitako atalak, gutun-azal edo artxibo elektronikoetan sartu beharreko dokumentu-eduki gisa (UNO, BI eta HIRU).

Ez dira onartuko adierazitako modu, epe eta lekuan aurkezten ez diren proposamenak.

23. KLAUSULA.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzaileek honako dokumentazio honen arabera aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak:

1 GUTUN-AZALA	DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA
2 GUTUN-AZALA	BALIOZKO JUDIZIOEN MENPE DAUDE IRIZPIDEAK
3 GUTUN-AZALA	ESKAINTZA EKONOMIKOA eta BALIOZKO JUDIZIOEN MENPE DAUDE IRIZPIDEAK

Gutun-azal bakoitzeko dokumentazioa “pdf”·dokumentu batean sartu beharko da, eta ireki ahal izateko pasahitz bat ezarri daiteke; kontratazio-mahaiari pasahitz hori adierazi beharko zaiona gutun-azala irekitzeko egintza publikoa hasi baino 5 minutu lehenago. Plikak irekitzeko pasahitz hori jakinarazten ez bada, lizitatzailea lizitazio-prozesutik kanpo geratuko da.
Gainera, proposamena erregistratzen denean honako hau adierazi beharko da kontzeptuan:**LOATZO PLAZAN KOMUNAK INSTALATZEA**

Ondoren adierazten den dokumentazioa jasoko beharko du gutun-azal bakoitzak:

1. Gutun-azala- Dokumentazio Administratiboa:

1. Kontratazioko europar agiri bakarraren inprimakiaren eredua beteko duen erantzukizunpeko adierazpena zeina ondoko helbide elektronikoan eskuragarri dagoen https://ec.europa.eu/tools/espd/filter?lang=es edo Plegu honetan jasotzen den erantzukizunpeko adierazpena (I. Eranskina); adierazpen hori sinatuta egon behar da, eta dagokion identifikazioarekin, eta honako hau adierazi behar du lizitatzaileak:

   a. Exijitzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela, kontrataziorako europar agiri bakarraren inprimaki bakarraren arabera plegu hauek ezartzen dituen baldintzetan.
   b.- Pertsona juridikoa bada, sozietatea baliozko moduan eratuta dagoela eta, sozietatearen helburuaren arabera, lizitaziora aurkez daitekeela, eta adierazpenaren sinatzaileak dagokion ordezkagarritasuna duela proposamena aurkezteko.
   c. Bere kabuz edo hedapenez kontratatzeko debekurik ez duela SPKLaren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz.

2. Enpresariak, SPKLaren 75. Artikuluaren arabera, beste enpresa batzuen kaudimeneraedo bitartekoetara joko balu, horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, eta adierazpen horretan kasu horietarako

beharrezko informazioa jaso beharko da, kontrataziorako europar agiri bakarraren inprimaki normalizatuaren arabera (II. eranskina)

3.- Jakinarazpenak egiteko posta elektroniko helbide bat.

4. Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkarte batean elkartuta aurkezten badira, enpresa-elkarte horretan parte hartzen duen enpresa bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu beharko da, eta adierazpen horietan kasu horietarako kontrataziorako europar agiri bakarraren inprimakian eskatzen den informazioa jaso beharko da (III. Eranskina).

Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpenez gain, aldi baterako enpresa-elkarteetan aurkezten diren enpresariek betebeharrak solidarioki bete beharko dituzte, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu bakarra izendatu beharko dute, eskubideak erabiltzeko eta kontratuaren ondoriozko betebeharrak kontratua deuseztatu bitartean betetzeko behar adinako ahalordeak dituena; horrez gain, ahalorde mankomunatuak ere egon daitezke, zenbateko handiko kobrantza eta ordainketetarako eman ditzaketenak. Halaber, enpresa elkartea eratzen dutenen izenak eta inguruabarrak, eta horietako bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dute, bai eta kontratuaren esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere.

5. Lehenengo puntuan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek adierazpena aurkeztuko dute, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gora beheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla esanez, eta, hala balegokio, dagokiekeen atzerriko jurisdikzioari uko eginez.

Kontratazio mahaiak frogagiri guztiak eta batzuk aurkez ditzatela eskatu ahal izango die lizitatzaileei, adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak daudenean, prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa denean eta, nolanahi ere, kontratua esleitu baino lehen.
Aurreko ataletan aipatutako gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari dagozkion inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epemugan bete beharko dira, bai eta kontratua formalizatzen den unean ere.

2 gutunazala- Baliozko judizioen menpe ez dauden irizpideak:

Proposamen tekniko bat aurkeztuko da, gutxienez honako alderdi hauek jasoko dituena:

a.- Komunaren deskribapena

Proposatutako komun aurrefabrikatuko moduluaren eredua eta ezaugarri teknikoak eta estetikoak: erabilitako materialak, akaberak, dituen elementuak eta ezaugarriak (komuna, argiztapena, aireztapena...).

Fitxa teknikoak, proposatutako komun ereduaren argazkiak aurkeztu beharko dira, bai eta hura behar bezala instalatzeko eta martxan jartzeko hornituko duen sistematika ere.

b.- Ianak gauzatzeko programa, bai eta eremuaren eragina minimizatzeko

proposatutako neurriak ere. Bertan, obra gauzatzeko behar den bide publikoaren okupazioa zehaztuko da. Alderdi horiek lan-programarekin batera baloratuko dira.

c.- Obra gauzatzeko plangintza. Lanen faseak erlazionatzen dituen kronograma bat idatziko da.

d.- Obrak egin bitartean ibilgailuen eta oinezkoen trafikoan sor daitezkeen afekzioen, mozketen eta desbideratzeen azalpena. Gorabehera horietarako aurreikusitako gehieneko denborak zehaztea. Proposatutako baliabideak, bai langileenak, bai baliabideenak.

e.- Bermealdirako mantentze-plana.

f.- Baliabide materialak: kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak jartzeko konpromisoa, eta horien zerrenda aurkeztu beharko da.

g.- Obrara atxikituko diren langileak eta laguntza teknikoak. Atal honetan honako hauek sartuko dira:

- Obrak egiten parte hartuko duten teknikarien izenen zerrenda, haien kualifikazioa eta lanbide-esperientzia adieraziz. Zerrenda horretan adierazi beharko da, halaber, zein dedikazio osoa, partziala edo aholkularitzakoa izango duten, bai eta obrak egiten diren bitartean non bizi diren ere.

- Nolanahi ere, kontratistaren ordezkari izango den pertsona izendatzea, dedikazio osoarekin. Izendapen hori, nahitaez, arkitektura teknikoko titulazioa edo antzeko lanetan esperientzia egiaztatua duen pertsona bati egin beharko zaio, eta kontratua gauzatzen den bitartean obran bertan bizi izan beharko da. Pertsona horrek esperientzia egokia izan beharko du, kasuan kasuko obren garrantziaren arabera, eta obra-burua izango da.

3 gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa eta baliozko judizioen menpe ez dauden irizpideak

3.1. Proposamen ekonomikoa

Proposamen ekonomikoak IV. eranskinean jasotzen den ereduarekin bat etorri behar du erabat.

Hizkiz eta zenbakiz idatzitako zenbatekoen artean kontraesanik baldin badago, eskaintza baztertu egingo da, baldin eta ezin bada ziurtasunez zehaztu bietako zein den eskainitako benetako prezioa.
Proposamena enpresa-talde batek egiten duenean, talde hori osatzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute proposamena, zuzenean edo ordezkari bitartez.

3.2.- balio-iritzirik behar ez duten irizpideak

Atal honetan, eskainitako berme-epea luzatzea baloratuko da.
Alderdi hori baloratzeko, hurrengo adierazpen bat aurkeztu beharko da, V. eranskineko eredua.

VI.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

24. KLAUSULA. PROPOSAMENAK IREKITZEA, AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK BALIOESTEA.
Kontratu hau **PROZEDURA IREKIAREN** bidez esleituko da.

1 eta 2 gutun-azalen dokumentazioaren kalifikazioa

A eta B kartazalak eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta 20 egun baino lehenago irekiko dira udaletxeko idazkaritza sailean.
Kontratazio-organoak, irekierarako ekitaldi publikoaren data eta ordua argitaratuko ditu kontratatzailearen profilean, lizitaziorako iragarkia argitaratzen duen unean.
A eta B gutun-azalak ireki baino 5 minutu lehenago, dagokion pdf dokumentuaren irekitzekodea jakinarazi beharko diote Mahaiari eskaintza-egileek. Jakinarazi ezean prozesutik kanpo gelditzuko da.

Telematikoki jasotako dokumentazioa kalifikatuko eta erkatuko da.
Erkatzea gauzatutakoan, A kartazaleko dokumentazioa udal-idazkariari bidaliko zaio, eta B gutunazalekoa, berriz, udal arkitekto teknikoari, dagozkion txostenak jaulkitzeko. Dokumentazioan akats materialak daudela ikusten bada, hiru egutegi-eguneko epea emango da adierazitako akatsa konpontzeko, eta, hala badagokio, bost eguneko epea argibideak edo dokumentu osagarriak aurkezteko.
Epe horiek jakinaraziko dira lizitazio honetarako emandako helbide elektronikoan; eta bidaltzen diren egunaren ondorengo egunetik aurrera konputatzen hasiko dira.

Horretarako emandako epean enpresak 1 gutun-azaleko gabeziak osatzeko eskatutako agiriak aurkezten ez baditu, prozesutik baztertuko zaio. 2 gutun-azalekoak zuzentzen ez baditu, berriz, dagokion irizpidearen araberako baloraziorik ez zaio egingo lizitatzaile horren eskaintzari.
Eskaintzak ebaluatzerakoan, 18. klausulan adierazitako esleitzeko irizpideak kontuan izango dira.

Proposamen hauek ez dira onartuko.

- 1 gutun-azalean eskatzen den zinpekoa behar bezala beteta aurkezten ez dutenak, eta zuzengarriak badira, horiek zuzentzeko udalak emandako 3 lanegunetan, zuzendu ez direnak.
- Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo arau-hausteak direla-eta Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko ezinbestekoa duena garbi ikusteko biderik ematen ez dutenak, eta badira zuzendu edo argitu horretarako udalak ematen dien hiru laneguneko epean, beti ere zuzengarriak badira.

- Proposamen bat baino gehiago aurkezten duten lizitadoreen eskaintzak.
- Ireki ezin direnak pasahitza ez delako eman eta emandakoa zuzena ez delako.

3zk. artxiboaren eskaintzak irekitzeko ekitaldi publikoa.

1 eta 2 gutun-azaletako dokumentuen kalifikazioa bukatutakoan, Mahaiak kontratistei deialdia egingo die “Eskaintza ekonomikoa eta balio-judizioei lotu gabeko irizpideak” izeneko 3 gutun-azala irekitzeko ekitaldi publikora bertaratzeko.
Kontratazio-organoak lizitazio-iragarkia argitaratzen den unean argitaratuko du deialdiaren data. Hori bai, aldatu egin behar da, eta kontratatzailearen profilean behar besteko aurrerapenarekin argitaratuko da irekiera-ekitaldi publikoaren data eta ordu berria, eta lizitazioan parte hartzeko emandako posta elektronikora jakinaraziko da.
3 gutun-azala ireki baino 5 minutu lehenago eskaintzaileek 3 gutun-azalari dagokion pdf dokumentuaren irekiera-kodea adierazi beharko diote Mahaiari. Bestela, prozeduratik kanpo gelditu ko da.

Ekitaldi publikoak ondorengo urrats hauek izango ditu:

- Lehenik, 1 eta 2 gutun-azaleko ebaluazioaren emaitza jakinaraziko zaiebertaratutakoen, hau da, lizitatzaileren bat kanpo gelditu den eta bakoitzak lortutako puntuazioa.

- Jarraian, kontratzio-mahaiak 3 gutun-azalak irekiko ditu, hain zuzen ere, onartutalizitatzaileen eskaintza ekonomikoa eta baliozkojudizioen menpe ez dauden irizpideak:

- Bilera itxian, kontratazio mahaiak eskaintzen puntuazioak banatuko ditu, aurrezbaztertuz lizitazio prezioa gainditzen dutenek . Eta ondoren, esleipen-proposamena luzatuko dio kontratazio-organoari, kasu honetan, tokiko gobernu batzarrak.

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak lizitatzaileari eskatu ahal izango dio aurkeztutako eskaintza argitzeko, edo, idazkuntzan akats material nabaririk badago, zuzentzeko, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatuz eta eskaintzaren terminoak inondik inora aldatzeko aukerarik gabe.
Kontratazio-mahaiak egiten duen esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako enpresaburuaren alde, eta ez ditu eskubide horiek eskuratutako administrazioari dagokionez, kontratazio-organoaren erabakiz kontratua esleitzen ez zaion bitartean.
Esleipena egin baino lehen kontratazio-organoak kontratua sinatzeari uko egiten badio edota prozeduran atzera egitea erabakitzen badu, lizitatzaileei ebazpen arrazoitua bidaltzeko jakinarazpenean lizitazio-gastuengatik ordainduko den konpentsazioa adieraziko du, hori badagokio.
Adjudikaziodun gisa proposatutako lizitatzaileak lizitazio-prozedura batean parte hartzeko aldez aurreko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezten duenean, Mahaiak kalifikatu egingo du aurkeztutako dokumentazioa, eta, zuzendu daitezkeen akatsak ikusten baditu, enpresaburuari hiru eguneko epea emango dio horiek zuzen ditzan, eta, hala badagokio, bost eguneko epea emango dio argibideak edo agiri osagarriak aurkez ditzan.
Interesdunei komunikazioa telematikoki egingo zaie udalaren egoitza elektronikoaren

bidez (http://irura.eus/eu/tramiteak), baita lizitazio honetarako emandako helbide elektronikoan ere.

VII.- ESLEIPENA 25. KLAUSULA. ESLEIPENA

Proposamenak irekitzen diren egunetik kontatzen hasi eta bi hilabeteko gehieneko epearen barruan kontratazio-organoak esleipena erabakiko du, eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta 15 eguneko epearen barruan kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Esleipenaren ebazpenean kalitate-prezioa erlazioan eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazioa aurkeztea eta ondorengo klausulan adierazitako aurretiazko betekizunak egiazta ditzala, horretarako 10 egun balioduneko epea emanez.

Adierazitako epean ez badu eskatutakoa egoki bete, lizitatzaileak eskaintza lehiaketatik kendu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZik gabe) zigor gisa.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenari jarraikiz.

Kontratazio-organoak lizitazioa esleitzeke deklaratu ahal izango du, hala dagokionean, kontratazio-mahaiaren proposamenez, klausulen agirian biltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat ez dagoenean.

26. KLAUSULA. AGIRIAK AURKEZTEA ETA ALDEZ AURRETIKO BALDINTZAK EGIAZTATZEA

1. Errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasi eta hamar egun balioduneko epean, ondoren adierazten diren aldez aurretiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du kalitate-prezio erlazioari dagokionez eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak:

- Enpresariaren nortasuna eta haren jarduera-esparrua egiaztatzen dituen dokumentazioa:
  - Nortasun Agiri Nazionalaren eta agiri horren fotokopia konpultsatua aurkeztuta egiaztatuko dute beren nortasuna pertsona fisikoek.
  - Enpresa pertsona juridikoa balitz, Merkataritza-erregistroan behar bezala inskribatutako eratze- edo aldatze-eskritura aurkeztuta egiaztatu beharko du nortasuna, merkataritza-legeria aplikagarriaren arabera betekizun hori exijitzekoa denean. Betekizun hori exijigarria ez bada, eraketaren edo aldaketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo eraketa-egintza, zeinetan jasotzen baitira jarduera erregulatzeko arauak; beharrezkoa bada, erregistro ofizialean inskribatuak Pertsona juridikoak lizitazio honen esleipendun izan ahalko dira, baldin eta prestazioak jasota baldin badaude beren berezko helburu, xede edo jarduera-esparru gisa beren estatutu edo eratze-arauetan; alderdi hori egiaztatuta geratu behar da aurkeztutako dokumentazioan.

  Aipatutako agirien jatorrizko aleak edo kopia konpultsatuak aurkeztu behar dira, indarrean dagoen legeriaren arabera egiazkotzat jotzen direnak.

- Ordezkagarritasuna egiaztatzen duten agiriak, hala badagokio:

  - Beste baten ordez aurkezten diren edo proposamenak sinatzen dituztenek, horretarako nahikoa ahalorde dutela egiaztatuko dute.
  - Lizitatzailearen ordezkaritza duen pertsonaren datuak; ahalorde bidez egiaztatu beharko da.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzearenfrogagiriak.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala. Lizitazio honidagokionez, ondoren adierazten direnen bitartez egiaztatuko da aipatutako kaudimena:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea

Enpresaburuaren kaudimen ekonomiko finantzarioa arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko aseguru bat dagoela justifikatuta akreditatu beharko da, 100.000 euroko gutxieneko zenbatekoaz, baita kontratuaren egikaritzapen osoan aseguruaren estaldura atxikiko dela bermatuko duen berritzeko edo luzatzeko konpromisoarekin batera ere.

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea.

Gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzeko, berriz, azken hiru urteetan egindako lanik garrantzizkoenen zerrenda aurkeztu behar da, eta, horrez gain, lan horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak adierazi behar dira. Jasotzailea sektore publikoko erakunde bat bada, eskudun organoak bisatutako edo egiaztatutako agirien bitartez kreditatu beharko dira egindako lanak; jasotzailea arlo pribatuko eroslea bada, horrek emandako ziurtagirien bidez, eta halakorik ez bada, enpresaburuaren deklarazioaren bidez.
Eskatzen den gutxienekoa: aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, ikusi behar da lizitatzaileak KONTRATU HONEN ANTZEKO EZAUGARRIAK DITUZTEN LANAK egin dituela azken 3 urteetan, 60.000 euroko gutxieneko zenbatekoarekin. Gutxieneko hori lortzeko, gehienez hiru lan multzokatu ahal izango dira.

Enpresa sortu berriek – Hau da, bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna dutenek – SPKLren 89. artikuluaren 1. zenbakiko b) letratik g) letrara bitartean ezarritako edozein bitartekoren bidez egiaztatu ahal izango dute kaudimena.

- Behin betiko bermea eratu izanaren frogagiria

- Atzerriko lizitatzaileek adierazpena aurkeztuko dute, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla esanez, eta, hala balegokio, dagokiekeen atzerriko jurisdikzioari berariaz uko eginez.

2. Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo omisioak ikusiko balira,lizitatzaileari jakinaraziko litzaioke, eta hiru egun balioduneko gehienezko epea emango litzaioke akats edo omisio horiek kontratuaren arduradunaren aurrean zuzen ditzan.

3. Errekerimendu hori ez bada betetzen dokumentazioa aurkezteko emandako epean,lizitatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da eta, kasu horretan, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran, hurrengo postuan geratu den lizitatzailearen dokumentazioa aztertuko da.

27. KLAUSULA. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA.

Kontratua formalizatzen denean burutuko da.
Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehazki egokituko den administrazio-dokumentu batean formalizatu beharko da, eta gainera eskritura publikoan formalizatu ahal izango da kontratistak hala eskatzen badu, sinaduratik eratortzen diren gastuak haren kargura izanik. Kasu horretan, kontratistak Administrazioari aipatu dokumentuaren kopia legitimatu bat eta kopia arrunt bat entregatu beharko dizkio formalizatzen denetik kontatzen hasi eta hilabeteko epearen barruan.
Kontratua formalizatu behar da, beranduenez ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 151. artikuluan aurreikusitako moduan lizitatzaileei esleipenaren jakinarazpena helarazten zaien egunetik zenbatzen hasi eta hamabost egun balioduneko epearen barruan.
SPKLren 153.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua adierazi den epearen barnean formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZik gabe) zigor gisa, lehenik eta behin betiko bermearen kontura horrelakorik eratu bada, SPKLren 71. artikuluko 2. idatz-zatiaren b) letran ezarritakoa alde batera utzi gabe.

28. KLAUSULA. UKO ETA ATZERA EGITEA.

Kontratazio-organoak erabakitzen badu esleipen-prozedurari uko egitea edo deialdiaren xede den kontratua ez esleitzea edo egitea erabakitzen badu, erabaki horren berri emango die izangaiei edo lizitatzaileei, bai eta Europako Batzordeari ere.
Kontratua formalizatu aurretik erabaki ahal izango du kontratazio-organoak kontratua ez esleitzea edo egitea, edo prozedurari uko egitea.
Interes publikoko arrazoiengatik bakarrik erabaki ahal izango da kontratua ez esleitzea edo egitea, eta behar bezala justifikatu beharko dira arrazoiok espedientean. Kasu horretan, ezin izango da xede bereko beste lizitaziorik sustatu, baldin eta erabakiaren oinarri gisa alegatutako arrazoiek irauten badute.

Prozedurari uko egiteko erabakia kontratua prestatzeko arauen edo esleipen-prozedura arautzen duten arauen zuzen ezin daitekeen arau-hauste batean oinarrituta egon behar da, eta espedientean justifikatu egin beharko da arrazoia. Prozedurari uko egiteko erabakia hartzeak ez du eragotziko berehala beste lizitazio-prozedura bat hastea.

VI.- KONTRATUA GAUZATZEA

29. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZEA, LAGATZEA ETA AZPI KONTRATAZIOA

- Kontratua gauzatzeko, kontratu-agirian, baldintza administratibo hauetan, Barru Arkitektura SLPk idatzitako “Loatzo plazan komun publiko bat jartzeko gauzatze proiektua” izeneko proiektuan, horren eraskinean (“especificaciones técnicas para los aseos públicos” izenekoa) eta esleipendunak aurkeztutako eskaintzan ezarritakoari jarraituko zaio, azkenekoaren kasuan eskaintza horrek udalaren oniritzia badu. Kontratuaren arduradunak, halaber, agiri horiek interpretatzeko emandako jarraibideei jarraituko zaie.

Kontratuaren arduradunari dagokio dokumentazio teknikoa interpretatzea eta hura garatzeko aginduak ematea. Kontratistak ezin izango du inola ere dokumentazio teknikoaren zehaztugabetasuna argudiatu. Bere ustez zehaztugabetasunen bat badu, idatziz eskatu beharko du dagokion definizioa, hori egin baino behar besteko aurrerapenarekin.
Udalak edozein unetan eta egokitzat jotzen duen guztietan ikuskatu ahal izango du kontratuaren gauzatzea. Kontratuaren arduradunak edo kontratazio-organoak izendatutako teknikariek egingo dute ikuskapena, eta dagozkion txostenak bidaliko dizkiote, esleipendunak, hala badagokio, dagozkion jarraibideak eman ditzan.

- Pertsona juridikoak hornidura egin beharko du, eta hura instalatu, bai eta obrak egin ere,ekipo eta giza baliabide egokiekin, eta lanen martxaren ondoriozko beharrei une oro erantzungo die. Bere proposamenean jasotako baliabide teknikoak ere jarriko ditu, eta, oro har, lanak behar bezala egiteko behar dituen guztiak.

- Kontratua sinatu eta hamabost egun naturaleko epean kontratistak Laneko Segurtasuneta Osasun Plana aurkeztuko du.

Eraikuntza-lanetako segurtasun- eta osasun-arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da plana, eta ezin izango du inolako aldaketarik egin kontratu-baldintzetan, aurreikusitako azpikontratazioak barne.
Eraikuntzaren Sektoreko azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 Legea garatzen duen 1109/2004 Errege Dekretuaren 16.2.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratistak segurtasun eta osasuneko koordinatzaileari jakinarazi beharko dio Azpikontratazio

Liburuan idatzitako azpikontratazio bakoitza.

- Kontratista izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta hornidurenkalitate teknikoaren erantzule, bai eta kontratua gauzatzerakoan egindako omisioek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko ondorioek Udalari edo hirugarrenei dakarzkieten ondorioen erantzule ere. Bere kontura ordainduko ditu hirugarrenei eragindako kalteak. Esleipendunak ustez anormaltasuna izan badu, kontratazio-organoak mekanismo egokiak ezarriko ditu kontratuaren jarraipen zehatza egiteko, kontratua behar bezala gauzatzen dela bermatzeko, kontratatutako zerbitzuen kalitatea murriztu gabe.

- Kalte-galerak. Kontratuaren zati bat bete gabe utziz gero, edo gaizki betez gero, edoberandutuz gero, eta zigorrik aurreikusita ez badago, edo, aurreikusita egon arren, Administrazioari eragindako kalteak estaltzen ez baditu, Administrazioak kalte-ordaina eskatuko dio enpresa kontratistari.

Obrak egiten diren bitartean eta berme-epea bete arte, enpresa kontratista da instalazioetan eta obretan antzeman daitezkeen akatsen erantzulea.
Zuzendaritzak uste badu obra-unitate akastunak edo kontratuaren baldintzak zorrotz betetzen ez dituztenak, hala ere, onargarriak direla, administrazioari proposatu ahal izango dio horiek onartzea, eta horrek prezioak jaistea ekarriko du. Kasu horretan, enpresa kontratista behartuta dago Administrazioak ezarritako prezio beheratuak onartzera, salbu eta unitate akastunak bere kabuz eta kontratuaren baldintzen arabera eraitsi eta berreraiki nahi baditu.

Enpresa kontratistak instalazioen eta behin-behineko obren eraginpeko azalerak tratatuko ditu, eta jatorrizko egoerara itzuliko ditu.
Enpresa kontratistak erantzukizun zibileko aseguru-kontratu bat izan beharko du kontratua gauzatzen den bitartean (luzapenak barne) eta dagokion berme-epean (luzapenak barne), hirugarrenei eragiten dizkien kalteetan duen erantzukizuna estaltzeko (ondorio horietarako, udala hirugarren gisa barne); eta Eraikuntzako Arrisku Guztien beste aseguru bat, egikaritzen ari diren obrek izan ditzaketen kalteak estaltzeko. Hori guztia kontratua sinatu eta gehienez ere hilabeteko epean egiaztatu beharko da. Horretarako, jatorrizko poliza eta primak ordaindu izanaren egiaztagiriak edo aseguru-entitatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

- Kontratistak beharrezko diren seinale guztiak jarri behar ditu, honako hauek adierazteko: lanetarako sarbidea, lanek hartzen duten eremuko zirkulazioa eta lanean ibiltzeagatik izan daitezkeen arrisku-puntuak.

Obrak egin bitartean erabiltzen diren kartel, errotulu, abisu eta seinale guztietan ez da hizkera sexistarik erabiliko, eta debekatuta dago irudi sexistak erabiltzea.

- Enpresa kontratistak nahitaez jakinarazi beharko dizkie Obra eta Zerbitzu Sailari eta Irurako Udalari obrek eragindako ibilgailuen eta oinezkoen trafikoaren afekzioak edo etenak, eta nahitaez bete beharko dituzte udal-zerbitzuek trafikoari eragindako kalteak minimizatzeko eta oinezkoen segurtasuna ziurtatzeko ezarritako arauak.

- Lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloanaplikagarriak diren legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak bete beharko ditu kontratuak.

- Kontratuaren xede diren prestazio osagarrien azpikontratazio partziala baimentzen da,Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Azpikontratazioa honako oinarrizko baldintza hauek betez egin beharko da:

a) Esleipendunak aldez aurretik eta idatziz udalari jakinaraztea egin nahi duen azpikontratu bakoitzari buruzko datu hauek:

- Azpikontratistaren identifikazioa, nortasunari, gaitasunari eta kaudimenari buruzkodatuekin.
- Azpikontratistak egin beharreko kontratuaren zatiak identifikatzea.
- Azpikontratatu beharreko prestazioen zenbatekoa.

b) Ezingo da azpikontratatu Administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasunik gabeutzitako pertsona edo enpresekin, ez eta azpikontratatzen diren prestazio zehatzak betetzeko gaitasun, kaudimen eta gaikuntza profesionalik ez dutenekin ere.

c) Azpikontratatzen duen kontratistak, azpikontratatzen dituen lanak hasi aurretik,egiaztatu beharko du lan horiek egingo dituzten langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela, apirilaren 29ko 5/2011 Errege Lege Dekretuak, ezkutuko enplegua erregularizatzeko eta kontrolatzeko eta etxebizitzen birgaitzea sustatzeko neurriei buruzkoak, ezarritakoa betez.

d) Kontratistak langileen ordezkariei azpikontratazioaren berri eman beharko die, lan-arloko legeriaren arabera.

e) Azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean soilik egongo dira behartuta, eta harkhartuko du bere gain Udalaren aurrean kontratua betearazteko erantzukizun osoa, administrazio-klausula zehatzen pleguen eta kontratuaren baldintzen arabera, ingurumen-, gizarte- eta lan-arloetako betebeharrak betetzea barne, bai eta datuen babesaren arloko araudi nazionalaren eta Europar Batasunaren araudiaren mende egoteko betebeharra ere. Udalak azpikontratazio nagusien berri izanez gero, ez da aldatuko kontratistaren erantzukizun esklusiboa.

f) Kontratistak hitzartutako prezioa ordaindu beharko die azpikontratistei, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako epeetan gutxienez egiten dituzten prestazioengatik. Hori betetzen dela bermatzeko, kontratu honen esparruan azpikontratatu diren enpresek edo autonomoek aurreko hilean egindako lanen ordainagiria aurkeztu beharko dio kontratistak udalari fakturazio bakoitzarekin.

- Kontratua laga ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 214. artikuluan ezarritako muga eta baldintzekin:
a) Kontratazio-organoak lagapena aldez aurretik eta berariaz baimentzea.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gutxienez gauzatuta izatea.

c) Lagapen-hartzaileak Administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izatea etakontratua gauzatzeko fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea. Baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio, behar bezala sailkatuta egon beharko du, eta kontratatzeko debekurik ez izatea.

d) Lagapena eskritura publikoan formalizatzea adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen artean.

30. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

1.- Kontratistak lanaren eta gizarte-segurantzaren alorrean indarrean dagoen araudia bete behar du nahitaez. Era berean, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, pertsona desgaituen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duena, 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Araudia, eta kontratua egikaritzen den bitartean promulgatzen diren arauak bete beharko ditu nahitaez.
Betebehar horiek ez betetzearen ondoriozko erantzukizun guztiak kontratistari egotziko zaizkio.

2.- Enpresa kontratistak enpresaburu orori atxikitako zuzendaritza-ahalmena benetan, modu eraginkorrean eta etengabe baliatzeko betebeharra hartzen du bere gain, kontratua egikaritzeaz arduratzen den lantaldeko langile guztiei dagokienez. Bereziki, bere betebehar izango dira honako hauek: soldatak negoziatu eta ordaintzea; baimen, lizentzia eta oporrak ematea; bajarik edo absentziarik izanez gero, ordezkoak jartzea; Gizarte Segurantzari dagozkion legezko betebeharrak betetzea, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea ere barnean hartuta, dagokionean; lan-arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak betetzea; diziplina-ahala baliatzea; eta enplegu-emailearen eta enplegatuaren arteko kontratu-loturatik ondorioztatutako eskubide eta betebehar guztiak.

Enpresa kontratistak, kontratua gauzatzeko aldi osoan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako arau eta baldintzak bete beharko ditu.
Zerbitzu teknikoek kontratistari eskatu ahal izango diote lan-arloko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko. Nahitaez bete beharko du dokumentazio hori, eta, bereziki, enpresa esleipendunek sektoreko hitzarmen kolektibo hori aplikatu beharko dute – gutxienez –, bereziki kontratua gauzatzera atxikitako langileei soldata ordaintzea.
Udalak inola ere ez du bere gain hartuko kontratua egikaritzeko kontratistak dituen langileekiko lan-harremana, ezta bestelako erantzukizunik ere.

3.- ingurumen-baldintzak.
3.a.- Esleipenduna behartuta dago kontratua gauzatzeak uki ditzakeen ingurumen-balioak mantentzera edo hobetzera.
3.b.- eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen arloko betebeharrak.

- Lanak hasi baino lehen, obra egingo duen pertsona fisiko edo juridikoak jabeari plan bat aurkeztu beharko dio, obra egiterakoan sortuko diren eraikitzeko eta eraisteko hondakinekin zerikusia duten eskakizunak nola beteko dituen azaltzen duena, batez ere Eraikuntza eta Eraispen Hondakinen Egoizpena eta Kudeaketa arautzen duen 112/2012 Dekretuak eta 2008ko otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuak, eraikitzeko eta eraisteko hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzekoak, 4.1 eta 5. artikuluetan jasotakoak.

- Plana, jabeak onartu eta onartu ondoren, obraren kontratu-dokumentuetan sartuko da.

- Baldintza horiek ez betetzeak berarekin ekarriko du Sektore Publikoko Kontratuen Legean zehazten den zigorra ezartzea, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik.

  Zigorra, bete ez denaren araberakoa izango da, proportzio irizpide baten bidez.

- Obra amaitzean, udalak hondakin guztiak behar bezala bereizi, kudeatu eta, ahal den neurrian, balorizatu direla egiaztatzeko eskatu ahal izango du.

4.- berdintasuna betearazteko baldintzak:
Esleipendunak kontratuaren esparruan sortutako eta erabilitako dokumentazioan, hizkera idatzi eta ikoniko ez-sexista erabiliko du.
Oro har, komunikaziorako erabiltzen diren material guztiek baldintza hauek bete beharko dituzte: hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea; emakumearen edozein irudi diskriminatzaile eta estereotipatu saihestea, eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, erantzukidetasuna, rolen aniztasuna eta genero-aniztasuna eta -identitateak jasotzen dituen irudia sustatzea (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako printzipioari jarraiki).
Gainera, ez da jokabide sexistarik onartuko, eta langileek hizkuntza sexistarik ez dutela erabiliko zainduko da.
Baldintza horiek kontratuaren funtsezko betebeharra dira, eta horiek ez betetzeak gainerako baldintzen ondorio berberak izan ditzake, hau da, zigorrak aplikatzea edo indargabetzea.

31. KLAUSULA.- INSTALAZIOAK ETA OBRAK JASOTZEA, BERME- EPEA ETA BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEA.

Material aurrefabrikatuaren instalazioa eta obrak amaitzean, hauek onartuko dituzte: kontratuaren arduradunak edo, bestela, Administrazioak aukeratutako fakultatibo batek; obren zuzendaritzaz arduratu den fakultatiboak; kontratistak eta, nahi izanez gero, haren fakultatiboak; eta, hala badagokio, kontratuaz arduratzeko aukeratu den teknikariak.
Obrak onartu eta hiru hilabeteko epean, gauzatutako obren azken ziurtapena onartu behar du kontratazio organoak, kontratua likidatzeko kontuan ordainduko dio dagokion organoak kontratistari.
Obrak egoera onean badaude eta ezarritako preskripzioak betetzen badituzte, administrazio kontratugileak haren izenean aritzeko aukeratutako funtzionario

teknikariak onartutakotzat joko ditu, dagokion akta egingo du, eta bermealdia hasiko da.

Obrak ez badaude onartzeko moduan, hala adieraziko da aktan. Haien zuzendariak zer akats hauteman diren adieraziko du, jarraibide zehatzak eskainiko ditu, eta epe bat jarriko du akatsak konpontzeko. Epe hori igarotakoan kontratistak ez badu bete agindutakoa, beste epe bat eman ahal izango zaio, luzaezina, edo kontratua suntsiarazi ahal izango da.
Bost urtekoa izango da bermealdia, salbu eta kontratistak epe luzeagoa eman badu. Kasu horretan, epe luzeago hori aplikatuko da, eta material aurrefabrikatuaren instalazioa etaobrak onartzen direnetik hasiko da.
Epe horretan, HAKLAOko 167. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, bai kontratistaren betebeharrei dagokienez, bai kontratistak betebeharren bat bete ezean obra zaintzeko beharrezkoak diren lanak bere kontura egiteko Administrazioak duen ahalmenari dagokionez ere.
Kontratistaren kontura izango dira bermealdian obrak eta instalazioak zaintzeak sorrarazten dituen gastuak, eta ez du eskubiderik izango kalte-ordainik jasotzeko. Ez dira kontuan hartuko ezinbestean obrari eragindako kalteak, haiek Udalaren kontura izango baitira. Hala ere, konponketa-lanak egiteko eskatu ahal izango dio Udalak kontratistari.
Bermealdia bete baino hamabost egun lehenago, obraren zuzendari fakultatiboa, ofizioz edo kontratistak hala eskatuta, obren egoerari buruzko txosten bat prestatuko du. Txostena aldekoa bada, kontratista erantzukizun orotik salbuetsita geratuko da (ezkutuko akatsengatiko erantzukizunetik izan ezik), eta bermea itzuli edo kitatuko da, kontratua likidatu, eta, hala badagokio, dauden betebeharrak ordaindu, organo eskudunen bidez.
Txostena aldekoa ez bada, eta ikusitako akatsak instalazioaren eta/edo obraren egikaritzearen akatsen ondorio badira, eta ez erabileraren ondorio, zuzendari teknikoak, berme-epean zehar, behar diren jarraibideak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpon dezan, eta epe bat emango dio horretarako. Epe horretan, instalazioak eta obrak kontserbatzeaz arduratuko da, eta ez du inolako diru-kopururik jasotzeko eskubiderik izango berme-epea luzatzeagatik.
Bermealdia amaitu ondoren hondatzen bada obra, kontratistak kontratua ez betetzearen ondorioz ezkutuko akatsak agertu direlako, kontratista izango da kalte-galeren erantzule, obrak onartu eta hamabost urteko epean.

32. KLAUSULA. UDALAREN ESKUMENAK

Udalari dagozkio hainbat eskumen, hala nola kontratua interpretatzea, kontratuaren betearazpenak eskaintzen dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiak direla-eta aldatzea, kontratua egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzea, kontratuaren egikaritzapena etetea, kontratuaren suntsiarazpena erabakitzea eta suntsiarazpen horren ondorioak zehaztea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako mugen barruan eta eskakizun eta ondorioei jarraikiz.
Era berean, kontratua egikaritzen den bitartean kontratistek garatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmenak ditu kontratazio-organoak, aipatu Legean kontratu mota bakoitzerako ezarritako moduan eta mugekin.
Aurreko artikuluan ezarritako eskumenei buruzko erabakiak hartzeko gauzatzen diren prozeduretan kontratistari entzunaldia eman beharko zaio.
Hartarako emandako erabakiek administrazio-bidea agortuko dute, eta berehala

betearazi beharrekoak izango dira.

33.- KLAUSULA.- KONTRATUA ALDATZEA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, Udalak aldatu ahal izango du kontratua, interes publikoko arrazoiak direla medio, premia berrien edo ezusteko kausen ondorioz, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
Kasu horietan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat, salbu eta 205. artikuluan kontratua aldatzeari dagokionez jasotako kasuetan. Horrelakoetan nahitaezkoak izango dira, soil-soilik, bakarka edo batera hartuta zenbatekoan eragiten duten aldaketak kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 gainditzen ez badute, BEZa aparte utzita.

34. KLAUSULA.- KONTRATUA SUNTSITZEA.

Zerbitzu Publikoko Kontratuen Legeko 211., 306. eta 245. artikuluetan ezarritakoak izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak.
Halaber, kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

a. Adjudikaziodunaren proposamena ez betetzea, kontraturako ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera baloratu den guztian.

b. Administrazio-klausula zehatzen agiri honetan azpikontratazioari eta lagapenari buruzezarritako betebeharrak.

c. Indarrean dagoen araudian eta segurtasun- eta osasun-planean aurreikusitakosegurtasun- eta osasun-neurriak zorrotz ez betetzea.

d. Langileei soldatak ez ordaintzea eta PFEZaren atxikipena egitea, bai eta GizarteSegurantzari dagozkion kuotak garaiz ordaintzea ere.

35. KLAUSULA.- ZIGORRAK (PENALITATEAK)

Enpresa kontratista kontratuan aurreikusitako edozein epetan berandutzen bada, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiarazi, edo zigor ekonomikoak ezartzea, hau da, BEZik gabeko kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 3 eurokoa. Atzerapena enpresa kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen bada, SPKLren 195.2 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Nolanahi ere, enpresa kontratista berandutze-egoeran jartzeko, ez da beharrezkoa izango administrazioak aldez aurretik interpelazioa egitea edo agindeirik egitea.
Kontratuaren xede den prestazioa gaizki betetzen bada, konpromisoak edo kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzen ez badira, edo enpresa kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako prestazioen zati bat betetzen ez badu, SPKLko 192. artikuluari jarraiki, zigorrak ezarri ahal izango dira, BEZik gabeko kontratuaren prezioaren % 10eraino,
Arau-hauste hauek akastuntzat jotzen dira: a) elementu aurrefabrikatuak ez hornitzea eta instalatzea, bai eta obrak egitea ere, Udalak onartutako dokumentazio teknikoan eta

adjudikaziodunaren eskaintzan ezarritako baldintzetan; b) Proiektu teknikoan eta haren eranskinean eta Udalak onartutako adjudikaziodunaren eskaintzan ezarritako kalitatebaldintzak ez betetzea; c) Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea. kontratuaren aurrekontuaren % 10era arte. d) SPKLren 215. artikuluaren arabera azpikontratazioa egiteko baldintzak ez betetzea. e) Atzerapenagatik, SPKLn xedatutakoaren arabera. 31

Kontratua ez betetzeagatik zigor eta kalte-ordain horiek ezartzeko, kontraesaneko espediente sumarioa egingo da, eta kontratistari 5 egun naturaleko epea emango zaio alegazioak aurkezteko, salaketa egin ondoren. Alegazio horiek eta zigor-espedientea alkateak ebatziko ditu, udaleko zerbitzuaren arduradunak txostena eta txosten juridikoa egin ondoren. Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio-bideari.

Udalak zigor horiek ezartzeko espedientea hasiko du gertakarien berri idatziz duen unean. Hala ere, ez-betetzeak lanen gauzatze materialari modu larrian eragingo ez diola uste bada, edo zigor-espedientea hasteak kontratuaren gauzatzeari onura baino gehiago kalte badiezaioke, espediente hori kontratuaren berme-epea amaitu aurreko edozein unetan hasi ahal izango da.

Ezarritako zigorrak eta kalte-ordainak berehala betearazi beharrekoak izango dira, eta Udalak kontratistari ordaintzeko dituen ordainketetatik kenduz gauzatuko dira. Jadanik ordaindu gabeko kopururik ez badago, behin betiko bermearen aurka ordaindu ahal izango dira, eta berme hori ez bada zigorraren zenbatekora iristen, premiamenduzko administrazio-bidetik erreklamatu ahal izango da, zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartzen delako.

36. KLAUSULA.- ESKUMENEKO JURISDIKZIOA

Kontratu honen ondoriozko gai eztabaidatsuak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta hartzen dituen erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari .

Administrazio-bideari amaiera jartzen dioten eta berehala betetzekoak diren egintzak errekurritu egin ahal izango dira, hilabeteko epean berraztetze errekurtsoaren bitartez (udalean bertan) edo bi hilabeteko epearen barruan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarrita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako moduan.

Auziren bat egongo balitz, esleipendunak bere Loatzo jurisdikzionalari espreski uko eginez, Gipuzkoako Epaitegi eta Auzitegitara jotzeko konpromezua adierazten du.

Irurako udala

2025KOIR0004

I. eranskina - Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua

……..jaunak/andreak, helbidea ……..…….eta ……..zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo ……. gisa (adierazi ordezkaritzaren ahalmenak; administrari bakarra, apoderatua…), helbidea …….. eta ……zenbakidun IFK duen …….enpresaren ordezkari gisa, lizitazioan parte hartzeko, Irurako Udalaren aurrean,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU, BERE ERANTZUKIZUNPEAN

LEHENENGOA. LOATZO PLAZAN KOMUN PUBLIKOAK INSTALATZEKO kontratazioan parte hartzera doala

BIGARRENA. 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen espainiar ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen Sektore Publikoko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. artikuluaren lehenengo atalak zerbitzu-kontratuaren esleipendun izateko exijitzen dituen aurretiazko eskakizun guztiak betetzen dituela; honako hauek, hain zuzen ere:

- Exijitzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko eskakizunak betetzen dituela.
- Pertsona juridikoa bada, sozietatea baliozko moduan eratuta dagoela eta, sozietatearen helburuaren arabera, lizitaziora aurkez daitekeela, eta adierazpenaren sinatzaileak dagokion ordezkagarritasuna duela proposamena aurkezteko.
- Ez duela bere kabuz edo hedapenez kontratatzeko debekurik, SPKLaren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz, eta indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Atzerriko enpresen kasuan, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla, eta, hala balegokio, lizitatzaileei dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-Loatzoari uko eginez.
- Honako hau dela jakinarazpenetarako helbide elektronikoa: ……

HIRUGARRENA. Adierazpen honen bigarren atalean aipatzen diren agiriak badituela eta horiek baliozkoak direla egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela, esleipendun gisa proposatzen badute edo horretarako errekerimendua egiten dioten edozein unetan.

Eta hori jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen dut.

……n, 2025eko .....ren ....(e)(a)n.

Sinadura (sinadura eta enpresaren zigilua)

Irurako udala

2025KOIR0004

II. eranskina: Kanpoko baliabideak (1 kartazala)

ZINPEKO DEKLARAZIOA, ESKATUTAKO KAUDIMENA EDO BALIABIDEAK BERMATZEKO, LIZITATZAILEAK BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENEAN EDO BALIABIDEETAN OINARRITU NAHI DUEN KASUETARAKO

…… jaunak/andreak, helbidea …… duenak eta ……NAN zenbakia daukanak, …… enpresaren legezko ordezkari gisa, helbidea …… duenak eta …… NAN edo IFZ duenak, adierazten du IRURAKO UDALAREN lizitazioko baldintzak eta horien ondorio guztiak ezagutzen dituela, **LOATZO PLAZAN KOMUN PUBLIKOAK INSTALATZEKO** kontratatzeari buruzkoak, non …… [*lizitatzailearen izena*] lizitatzaile moduan lehiatzen den, eta adierazten du badituela eskatutako kaudimena eta baliabideak –lizitatzailea esleipendun suertatuz gero frogatu egin beharko du– eta bere borondate atzeraezina adierazten du kontratuaren esleipendun gertatzen bada aipatutako lizitatzailearen esku jartzeko kontratua betetzeko beharrezkoak diren baliabideak, Kode Zibilaren 1.257. artikuluko 2. atalean xedatutakoa esanbidez onartu eta bere ordezkapena edo aldaketa Irurako Udalak esanbidez baimendu beharko duelarik.

Idazki hau Irurako Udalaren aurrean aurkezteak konpromiso hori onartzea ekarriko du, delako lizitatzailea kontratuaren esleipenduna suertatzen den kasuan.

……n, 2025eko .....ren ....(e)(a)n.

Sinadura (sinadura eta enpresaren zigilua)

Irurako udala

2025KOIR0004

III. ERANSKINA -ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

……..jaunak/andreak, helbidea
……..……eta
……..zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo
……. gisa (adierazi ordezkaritzaren ahalmenak; administrari bakarra, apoderatua…), helbidea
…….. eta
…….zenbakidun IFK duen
…….enpresaren ordezkari gisa ETA
……..jaunak/andreak, helbidea
……..……eta
……..zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo
……. gisa (adierazi ordezkaritzaren ahalmenak; administrari bakarra, apoderatua…), helbidea
…….. eta
…….zenbakidun IFK duen
…….enpresaren ordezkari gisa

HONAKOA ADIERAZTEN DUTE

Aldi Baterako Enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela, % … (e)ko eta % …(e)ko partaidetzekin hurrenez hurren, eta …….. jauna/andrea izendatzen dutela kontratuaren ondoriozko eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko behar adinako ahalordedun elkartearen ordezkari edo apoderatu bakar, kontratua azkentzen den arte.

Eta .....n 2025eko .....ren ...(e)(a)n egiten dugun adierazpen honekiko adostasuna erakusteko

Izp.: Izp.:

Enpresaren zigilua Enpresaren zigilua

Irurako udala

2025KOIR0004

IV. eranskina: Proposamen-ekonomikoaren eredua (3 gutun-azala)

Nik, ...
jaunak (helbidea: .....
....PK:....., NAN: ....., telefonozenbakia: ....., eta posta elektronikoko helbidea: …....) prozedura osoa Udalari jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean (edo …… jauna/andrearen
PK:……., telefono-zenbakia: ……., eta NAN edo IFK: …….... -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari gisa), **LOATZO PLAZAN KOMUN PUBLIKOAK INSTALATZEKO** Irurako Udalak deitu duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1) Zerbitzu prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen dudala:

lizitazio-prezioa (BEZik gabe)	**EGITEN DUEN ESKAINTZA: PREZIOA BEZik GABE**	Baja zifra absolututan	Baja (%)

Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe .....EURO dela
Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe, …....euroko baja dela, hots,
% .....

2.- Kontratua esleitzen badidate, eskatutako polizan eta kontratuan eskatzen diren berme osagarrien ekarpena egiteko konpromisoa hartzen dudala.

Sinadura

Irurako udala

2025KOIR0004

V. Eranskina- berme-epeari buruzko adierazpena (3 gutun-azala).

Nik,
.....
jaunak/andereak
(helbidea: .....
....PK:....., NAN:
....., telefonozenbakia: ....., eta posta elektronikoko helbidea: …....) prozedura osoa Udalari jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean (edo ……. jauna/andrearen
PK:……., telefono-zenbakia: ……., eta NAN edo IFK: ……... -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari gisa), **LOATZO PLAZAN KOMUN PUBLIKOAK INSTALATZEKO** Irurako Udalak duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

HONAKOA ADIERAZTEN DUT:

1) Konpromisoa hartzen dudala … …. urteko berme-epea ezartzeko.

2) Eskainitako epea eskatzen den gutxienekoa … urtez handitzea dakarrela.

Eta adierazpen horrekiko adostasunaren erakusgarri, honako adierazpena sinatzen dut, ……n, ...(e)ko ……..ren …….(e)(a)n.

Izp.:

Irurako udala

2025KOIR0004

VI. ERANSKINA. KONTRATUA GAUZATZEKO EMAKUMEAK KONTRATATZEKO EREDUA.

..... enpresak (IFK:.....; eta helbidea:.....), honako helbide honetan:..... PK..... eta bere izenean (ahaldunen izen-abizenak)..... ....., egintza honetan behartzeko ahalorde nahikoarekin, Irurako Udalak..... egunean egindako askiespenetik ondorioztatzen denez.

ETA KONPROMISOA HARTZEN DU KONTRATU HAU GAUZATZEKO EMAKUME HAU ENPLEGATZEKO:

DATU PERTSONALAK

Adina	☐ 45 urte azpikoa	☐ 45 urte eta gehiago
Izen abizenak:		
NAN		
Gizarte Segur.zk.		

DATU PROFESIONALAK

KONTRATUA			
Lan taldea			
Postua			
Lan jarduna			
Aintzintasuna	2 urte baino gutxiago ☐	2 eta 5 urte bitartean ☐	5 urte baino gehiago ☐
Bere ardurapeko pertsonala dauka:		Bai ☐	Ez ☐

Eskuartean dugun kontratuan honako betebehar hauei erantzuteko:

-
-
- …

Sinadura.

a. Aurkeztu beharreko dokumentazioa: ITA txostena (altan dauden langileen txostena), kontratua hasi zenetik kontratua amaitu arte etenik gabe ALTA emanda egon dela frogatu beharko da, eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, kontratatutako pertsonak sexuaren arabera bereizita.
b. Kontratua egikaritzera atxikitako pertsona kontratatuen adierazpen nominala, bai eta guztizkoarekiko emakumeen kopurua eta ehunekoa ere.
c. Enpresa esleipendunak nahitaez bete beharko du baldintza hori, eta eranskin honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du, kontratua sinatu eta astebeteko epean, betetzen dela egiaztatzeko.
d. Klausula hau ez betetzea oso larritzat joko da.

Irurako udala

2025KOIR0004

VI. Eranskina- ingurumen irizpideak (3 gutun-azala).

Nik,
.....
jaunak/andereak
(helbidea: .....
....PK:....., NAN:
....., telefonozenbakia: ....., eta posta elektronikoko helbidea: ….....) prozedura osoa Udalari jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean (edo ……. jauna/andrearen
PK:……., telefono-zenbakia: ……., eta NAN edo IFK: ……... -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari gisa), **LOATZO PLAZAN KOMUN PUBLIKOAK INSTALATZEKO** Irurako Udalak duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

HONAKOA ADIERAZTEN DUT:

Nire enpresaren izenean ____ EURO 6 ereduko ibilgailua/ak dudala/ditudala.

Dokumentzioa atxikitzen dut.

Eta adierazpen horrekiko adostasunaren erakusgarri, honako adierazpena sinatzen dut, ……n, ...(e)ko ……..ren …….(e)(a)n.

Izp.: